

LEGARREKO AUZOKO BILERA (San Andrés Egoitza, 2013/11/07)

<p>San Andres ospitalearen ondoan dagoen kale-zuloan igogailua eraikitzeko gestioak zein egoeratan dauden galdetu dute. Igogailu horrek Legarregain kalera eta Legarregaineko etxe berrietara emango du.</p>	<p>Obrak apirilean atera ziren lizitaziora eta igogailua martxan egongo da urtea amaitu baino lehen.</p>	<p>Alkatetza.</p>
<p>Auzoko batek protestatu egin du trenak zarata ateratzen duelako Legarre kaleko 7-9 etheen paretik igarotzean.</p>	<p>Zarata hori trenbide bikoiztutik trenbide bakarrera pasatzean sortzen da. Obra guztia amaitzen denean ez du hainbeste zaratarik aterako.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>Legarre kaleko 8ko garajeetako administratzaile andreak kexa sartu du garajeetan ura sartzen delako.</p>	<p>Auzoko jendeari hauxe azaldu zitzaion: gai hori etxeko komunitatearen edo erkidegoaren arazo partikular bat zela.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>San Andres pasealekua Arrate bidearekin elkartzen duen arrapalaren hasieran dagoen espaloia birmoldatzea eskatu dute.</p>	<p>Espaloia hobetu zen.</p>	<p>Obrak.</p>

LEGARREKO AUZOKO BILERA (San Andrés Egoitza, 2013/11/07)

Milaflores auzoko bizilagun batek saneamenduarekin arazoak dituztela azaldu du (hodiak apurtuta).	Horrek berri Gipuzkoako Uraki eman zitzaion.	Obrak.
Milafloresko bizilagun batek asfaltatua osatzea eskatu du irteera-aldean aglomeratu berezi bat botata.	Datorren urteko asfaltatze-proiektuetan sartu behar den ikusteko, eskaera aztertuko da.	Obrak.
Auzolagun batek galdetu du ea eraikiko den Arratebideko txaletetatik Itzio ikastetxeraino doan espaloia .	Trenbidea bikoizteko obrak amaitzen direnean obra hori egiteko asmoa dago.	Obrak.
Kalea eraberritu ondoren Legarreko pegorak nola geratuko diren galdetu du bizilagun batek.	Pegorak lehen bezala geratuko dira, espaloiari zabalera handiagoa emango zaio oraingo kota aldatzeke.	Obrak.

LEGARREKO AUZOKO BILERA (San Andrés Egoitza, 2013/11/07)

<p>Trenbide gaineko pasealeku-zati berriaren obra amaitu ondoren gerizpea izateko zerbait jartzea eskatu dute (arbolak, pergolak...)</p>	<p>Zerbait jarriko da egoteko lekuetan gerizpeak izateko.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>Kantoi eta Eroski aldean biribilguneak jartzea eskatu dute (obrak direla eta, bide aldaketa dago).</p>	<p>Ez dago behar adina leku eskatu dena egiteko, izan ere, leku hartan trafiko asko izaten baita.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>Legarregain kaleko 5ean dagoen etxebizitza batean ura sartzen dela adierazi dute.</p>	<p>Gipuzkoako Urak aztertu ditu eraikinaren ostean dauden hodiak.</p>	<p>Obrak.</p>
<p>Auzolagun batek esan du kezkatuta dagoela ibilgailu batzuk kontrako bide debekatuan ibiltzen direlako Itzio aldetik Arratebide kalera.</p>	<p>Zainduko da alde hura.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>

LEGARREKO AUZOKO BILERA (San Andrés Egoitza, 2013/11/07)

<p>Kexatu egin dira auzoan txakur kakak daudelako.</p>	<p>Udaltzaingoiari agindu garbi bat eman zaio: kaka jasotzen ez duten txakur-jabeei zehapena edo zigorra ezartzea.</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>
<p>Milaflores auzoko bizilagun batek irteera-hormaren ondoan 'ez <i>aparkatu</i>' liokeen seinalea jartzea eskatu du.</p>	<p>Debekuaren seinalean jarri da</p>	<p>Udaltzaingoa.</p>
<p>Auzoko andre batek Arratebide 18-19ko eskaileretan dauden sasiak kentzea eskatu du.</p>	<p>Arratebide 19ra ematen duten eskailerak badira aipatzen dituenak, horiek pribatuak dira eta sartzeko atea itxita dago. Ostera, 16. zenbakiaren aldamenetik gora doazen eskailerak badira kexaren arrazoi, ezkerreko horma (igotzen gaudela, ezkerrean geratzen dena) garbitu dela azaldu behar da.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Kexa sartu dute Legarregain 9ko kalearen parean dauden arbolek sortzen dituzten eragozpenengatik. Esaten dute argia kentzen dutela, zikinkeria sortu...</p>	<p>Alde hura ikusi ondoren, arboletako bat kentzea erabaki da hilda dagoelako eta gainerakoak saneatzea.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>

LEGARREKO AUZOKO BILERA (San Andrés Egoitza, 2013/11/07)

<p>Milafloreseko bizilagun batek kexa sartu du Alfa ikastetxea Arrateko errepidearekin elkartzen duten eskailerak egoera txarrean daudelako.</p>	<p>Inguru hura txukundu eta eskailerak garbitu ziren.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Milaflores auzoan farola batzuk konpontzea eskatu da.</p>	<p>Lan-agindua egin da farolen egoera nolakoa den aztertzeko eta aberiatuta daudenak konpontzeko. Aipatu behar da doblatuta dagoena ondo dabilela eta ez duela arriskurik, beraz, ez da lehentasunezko hartzen.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Miraflores auzoko bizilagun batek kexa sartu du sasitza edo sastraka nola garbitu den ikusita (esaten du amaitzeke dagoela, kamino-bazterrak zikinduta geratu direla, harriak...)</p>	<p>Hasierako garbiketa Debemen-ek egin zuen; gero, Mantentze Lantaldea joan zen berriro eta kamino-ertz guztiak garbitu zituen, uraren hustubideak ez, hori Mankomunitatearen lana baita. Mankomunitateari abisua bidali zitzaion hustubideak garbitu zitzaizkion.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Arratebide kaleko 5-7-9an dauden eserlekuak garbitzea eta pintatzea eskatu dute.</p>	<p>Lan-agindua egin da, lehenengo garbitu eta, hori egin ondoren, eserleku horiek pintatzeko.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>

LEGARREKO AUZOKO BILERA (San Andrés Egoitza, 2013/11/07)

<p>San Andres pasealekua Legarre kalearekin elkartzen duen tuneleko espaloiak zikinak daudela-eta, kexa.</p>	<p>Lan-agindua egin da, presioko uraren makinarekin alde edo zati hori garbitzeko.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Kexak eskailera mekaniko batzuen funtzionamendua txarra delako. Eskailerak arrankatzeko sistema aldatzerik ote dagoen galdetu dute.</p>	<p>Ez da inongo arazorik ikusi eskailerak arrankatzeko sistemetan.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Edukiontzi berde berriek ez dutela zabaltzeko pedalik eta kexak sartu dira.</p>	<p>Legarre auzoko edukiontzi guztiak kamioaren atzetik kargatzekoak eta pedal barikoak dira, izan ere, albo-kargako kamioak arazoak izaten baititu auzo horretatik ibiltzeko, kale estuak eta autoak txarto aparkatuta egoten direlako. Badago aukera kamioiek atzetik kargatzeko edukiontzi pedaldunak ipintzeko. Mankomunitateari hori galdetzea eskatu zitzaion. Hori jartzeak edukiontzi bakoitzeko 400 euro inguruko kostua edukiko luke. Edukiontzi berria ipintzearen kostua kontuan hartuta, berrizteko beharra egon arte itzarotea erabakitzen da.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>
<p>Auzoko bizilagun bat kexatu da Legarregain kaleko 14an argitasunean arazoak izan eta egin zuen eskaerari erantzunik ez emateagatik.</p>	<p>Etxe berriak eraikitzeako obren ondoriozko aberia bat izan zen. Hura konpondu zen eta jasotako kexa guztiei erantzuten saiatu.</p>	<p>Zerbitzuak.</p>